



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko uztailaren 5a

77. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egutegi berekia bete dezan Foru Komunitatean hurrei txertoak jartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Leitzako Maxurrenea etxea ahal bezain las-ter erabili ahal izatea jarduera sozial edo kulturaletarako. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Zentro Teknologikoari edukia eman diezaion, eskualde horretan elementu dinamizatzaile bat izan dadin. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro abian jar dezan HIESaren Batzorde Teknikoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako autoreek sortutako musika eza-gutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua dezan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eginiko lana, eta beharrezkoak diren ekimen guztiak proposa ditzan hura garatu eta sustatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko kreditu entitateen ikus-ka-penerako plan integral bat presta eta aurrera eraman dezan, abusuzko klausulak zigortze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da produktu finantzarioen ikuska-pen-kanpaina bat egin dezan, balizko abusuzko klausulak hautemate aldera. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Gipuzkoako Aldundiak bidesariak ezar ditzan N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioak bete ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Alfredo Landa” izena eman diezaion Baluarteko areto nagusiari. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Adierazpen politikoak, Saharako herriarekiko elkartasuna adieraztekoa. Osoko Bilkurak berretsia (8. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egutegi berekia bete dezan Foru Komunitatean haurrei txertoak jartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 27an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egutegi berekia bete dezan Foru Komunitatean haurrei txertoak jartzeko". Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere egutegi berekia aplikatu dezan Nafarroako Foru Komunitateko haurrei txertoak jartzeari dagokionez, Espainiako Gobernuak ezarriko duen egutegia osatuz. Txerta-

keta-egutegi hori Espainiako Gobernuak ezarriko du Osasun Ministerioaren bitartez, osasun arloko gastua doitzeko irrikan, eta kontuan hartu gabe doiketa horiek zerbitzuen kalitateari egindako kaltea.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasuneko kontseilaria premiatzen du jarrera irmoa eta Ministerioak egindako proposamenaren aurkakoa adieraz dezan, eta Lurraldearteko Kontseiluan Foru Komunitatearen eskumen-ahalmena defenda dezan, bere txertaketa-egutegi berekia ezartzekoa."

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Leitzako Maxurrenea etxea ahal bezain laster erabili ahal izatea jarduera sozial edo kulturaletarako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 27an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Leitzako Maxurrenea etxea ahal bezain laster erabili ahal izatea jarduera sozial edo kulturaletarako". Erabakia eragin zuen mozioa Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkeztu zuten, eta 2013ko apirilaren 29ko 44.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara. Hona erabakiaren testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du fundazio-manua bete dezan, Leitzako Maxurrenea etxea ahal bezain laster erabili ahal izateko jarduera sozial edo kulturaletarako."

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Zentro Teknologikoari edukia eman diezaion, eskualde horretan elementu dinamizatzaile bat izan dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 27an onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Zentro Teknologikoari edukia eman diezaion, eskualde horretan elementu dinamizatzaile bat izan dadin”. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako Zentro Teknologikoari edukia eman diezaion, eskualde horretan elementu dinamizatzaile bat izan dadin zailtasun bereziko uneotan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, aurreko puntuan ezarri-

takoa betetzeko xedez, eta sektoreko ordezkarietako lankidetzaren estuan, Zentro Teknologikoaren lehentasuna izan dadin Nafarroako Arte Grafikoen sektorea defendatzea eta indartzea, bere garapen teknologikoari lagunduz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010eko urtarrilean Lizarrako Udalarekin sinaturiko hitzarmena gaurkotu dezan, edo hitzarmen berri bat sinatzea negoziatu dezan, errazte aldera Lizarrako Zentro Teknologikoaren jarduna eta zentro teknologiko horren etorkizunerako entitate pribatuen lankidetzaren eta ekarpenak.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro abian jar dezan HIESaren Batzorde Teknikoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 27an onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro abian jar dezan HIESaren Batzorde Teknikoa”. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du HIESari buruzko Batzorde Teknikoa berriro abian jar dezan, arlo honetan lan egiten duten departamentu, unitate eta GKEen koordinazio gune gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prebentzio eta sentibilizazioaren eremuan eragiteko kanpaina bat egin dezan, beharrezko baliabide ekonomiko eta materialak esleitzuz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sexu-heziketa eta orientazioa modu integralean sustatu ditzen, dagokien departamentuen parte hartzearekin eta ekimen zehatzak abiatuz; esaterako, hezkuntza- eta osasun-arloetako profesionalen prestakuntza egokia eskainiz.

4. Nafarroako Parlamentuak HIESaren prebentzioa eta interbentzio zuzenean lanean ari diren GKEen lanaren garrantzia berresten du, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du erakunde hauek beren jarduna burutzeko beharrezko duten finantziarioa berehalakoan bermatu diezaion.”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 28an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan." Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan. Plan horrek ondoko ekimenak jasoko ditu, gutxienez:

a.- Nafarroako musika-taldeekin sinatutako hitzarmenetan jasotzea Nafarroako autoreen musika interpretatzeko betebeharra, bidezkotzat jotzen den moduan.

b.- Beka bat sortzea, Nafarroako Gobernuak sustatutako deialdien barruan, Nafarroako musikariek zerikusia duen alderdiren bat aztertzeo: haien bizitza, ibilbide artistikoa edota obraren bat.

c.- Nafarroako musika entitateen eskuragarri jartzea Foru Komunitatean mendeetan zehar izandako musikari nagusien partitura adierazgarriak. Lan horretan parte hartu ahalko lukete bai partitura horiek dauzkaten entitateek, bai Nafarro-

ako Kulturaren Kontseiluko Musika Batzordeak, elementu koordinatzaile gisa.

d.- Lorenzo Ondarraren eta Pascual Aldaveren ibilbideak aintzatestea, egokien jotzen den moduan, XX. mendearen amaierako eta XXI. mendearen hasierako autore garrantzitsuenetako bi baitira.

e.- Musikari buruzko monografia bat egiteko enkargua egin eta argitaratzea Nafarroa sailean, Historia, Geografia edo Etnografiakoak egin diren moduan.

f.- Bidezkotzat jotzen diren ekintza guztiak, proposatutako xedea betetze aldera; hain zuzen, Nafarroako musikarien eta haiek eginiko sorkuntza-lanaren ezagutza eta estimua areagotzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu plana irailaren 30a baino lehen aurkez dezan Kulturako, Turismo-ko eta Erakunde Harremanetako Batzordean, han jasotako jarduketetako batzuk aurreikuste aldera 2014ko aurrekontuan eta erkidegoko musika-entitateekin sinatu beharreko deialdi eta hitzarmen berrietan."

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua dezan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eginiko lana, eta beharrezkoak diren ekimen guztiak proposa ditzan hura garatu eta sustatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 28an onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua dezan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eginiko lana, eta beharrezkoak diren ekimen guztiak proposa ditzan hura garatu eta sustatzeko.” Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrazter ditzan Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioaren helburuak eta xedeak, egungo beharrezkoak erakundearen egokitze aldera, nabarmen aldatu baitira erakunde hori abian jarri zenetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bidezkoak diren aldaketak proposa ditzan, Nafarroako Kultura Kontseiluaren Ondare Batzordearen aholkularitzarekin, aurreikusitako helburuak lortze aldera. Bi helburu azpimarratzen dira bereziki: edozein per-

tsona fisiko eta juridiko, publiko edo pribatuen-gandik baliabide ekonomikoak lortzea, edozein eratako diru-laguntzen edo laguntzen bidez, beharrezkoak baitira fundazioaren xedeak egoki gauzatzeko; eta herritarrei fundazioaren xedeak berri ematea, Nafarroako Ondare Historikoa hobeki ezagut dadin.

3. Fundazioa gizartean txertatu eta gehiago irekitze aldera, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturaren arloan prestigio handikoak diren pertsonak sar ditzan patronatuan, gaur egun ia osorik Gobernuo kidez bakarrik osatua baitago.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurtengo irailaren 30a baino lehen aurkez dezan Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean araudi berria, bidezkotzat jotzen dituen aldatetekin, 2014ko aurrekontuen aurreproiektua egiterako eraginkorra izan dadin”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko kreditu entitateen ikuskapenerako plan integral bat presta eta aurrera eraman dezan, abusuzko klausulak zigortze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 28an onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko kreditu entitateen ikuskapenerako plan integral bat presta eta aurrera eraman dezan, abusuzko klausulak zigortze aldera.” Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure Komunitatean jarduten duten kreditu entitateen ikuskapenerako plan integral bat prestatu eta aurrera eraman dezan lehenbailehen, abusuzko klausulen erabilera detektatu eta zigortze aldera, eta hiru hilabeteko epean Legebiltzarrera igor ditzan plan horren emaitzak”

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da produktu finantzarioen ikuskapen-kanpaina bat egin dezan, balizko abusuzko klausulak hautemate aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 28an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da produktu finantzarioen ikuskapen-kanpaina bat egin dezan, balizko abusuzko klausulak hautemate aldera." Honakoa du testua:

"1. 2013an zehar egin dezan Nafarroan kokaturiko entitate finantzarioek merkaturatzen dituzten produktuen ikuskapen kanpaina bat, kontsumi-

tzaileei aplikatzen zaizkien balizko abusuzko klausulak detektatze aldera.

2. Ekimen hori modu erregularrean jaso dezan Nafarroako Kontsumo Zerbitzuaren jarduketan egutegian.

3. Balizko abusuzko klausulei buruzko ahalik eta informazio gehien jartzea kontsumitzaileak artatzeko bulegoetan eta Nafarroako Gobernuaren webgunean."

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Gipuzkoako Aldundiak bidesariak ezar ditzan N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 28an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Gipuzkoako Aldundiak bidesariak ezar ditzan N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean." Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Gipuzkoako Aldundiak harturiko erabakia, zeinaren bidez bidesariak ezarriko baitira N-1 errepidean, Donostiarako autobian (A-15) eta N-121-A errepidean, aldezturik Nafarroarekin akordio-

lortu gabe ekintza horrek mugikortasunean izanen duen eraginari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Foru Komunitateari eragiten dion komunikazio-bideen edozein aldaketa egiteko beharrezkoa dela administrazio eskudunen arteko akordioa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du elkarrizketak has ditzan Gipuzkoako Aldundiarekin, sorturiko desadostasuna era egokian eta bere osotasunean ebazte aldera, mugikortasun iraungarriaren ildotik.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioak bete ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko ekainaren 28an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioak bete ditzan." Erabakia eragin zuen mozioa Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2013ko ekainaren 25eko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

"1. Nafarroako Parlamentuak, gure parlamentu-araubideari eta araubide juridikoari jarraituz, adie-

razten du Legebiltzar honek onetsitako mozioak Nafarroako Gobernuak ezin gutxiets ditzakeen proposamen politikoak direla.

2. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere gobernu-jardunetan serioski aintzat har dezan Legebiltzar honek onetsitako mozioetan ezarritakoa.

3. Nafarroako Parlamentuak bere Urteko Jardueren Oroitidazkian atal bat sortuko du, Nafarroako Gobernuak bete ez dituen mozio onetsiak adierazita."

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da "Alfredo Landa" izena eman diezaion Baluarteke areto nagusiari.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen baztertzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen "Alfredo Landa" izena

eman ziezaion Baluarteke areto nagusiari. Muzio hori 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen politikoa, Saharako herriarekiko elkartasuna adieraztekoa.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 27an egindako bileran, erabaki zuen berrestea Eledunen Batzarrak ekainaren 24an egindako bilkuran onetsitako adierazpen politikoa, Saharako herriarekiko elkartasuna adieraztekoa. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du Saharako herriak gaur egun bizi duen egoera dela-eta, zeina larrialdi humanitariokotzat jo baitaiteke, etorkizunik gabea eta gatazkaren konponbide baketsuen eta politikoen blokeokoa; eta, halaber, kezka adierazten du egoera horrek gatazkaren konponbide baketsurako izan ditzakeen ondorioak direla-eta.

Nafarroako Parlamentuak Saharako herriaren ordezkari legitimoak animatzen ditu jarrai dezaten konponbide politikoen bidea defendatzen nazioartean, eta berriro ere adierazten du Saharako gatazkaren konponbide bidezko eta iraunkor bakarra dela Nazio Batuen Erakundearen erabakiak betetzea eta autodeterminazio erreferendum bat egitea, Saharako herriak bere etorkizuna erabaki ahal izateko, Estatu burujabearen aukera ere kontuan hartuta. Hori dela eta, Espainiako Gobernuari eta nazioarteari eskatzen die Maroko premia dezaten egoera horri amaiera ematera eta saharar herriaren autodeterminazio erreferendum bat egitera Nazio Batuen Erakundearen babespean, hori baita arazoaren konponbide politiko eta baketsu bakarra.

Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die lurralde okupatuetan Marokoren menpe bizi diren sahararrei, egunero pairatzen baitute errepresioa eta giza eskubideekiko errespetu falta, eta eskatzen du preso politiko sahararrak aske uztea eta Marokoko Estatuak eragindako indarkeriaren ondorioz desagertuen kasuak argitu daitezela. Halaber, Nafarroako Parlamentuak uste du desiragarria dela MINURSO arduratzea giza eskubideen zaintzaz Marokok Mendebaldeko Saharan okupatuta dituen lurraldeetan, egungo okupazio-egoerak irauten duen bitartean.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu laguntza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren arloko lehentasun gisa manten ditzaten sahararren errefuxiatu-esparruekin zerikusia duten laguntza eta proiektuak, bai eta esparru horiek antolatzeke bertako ordezkari legitimoek egiten dituzten lanak babestea ere.

Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio Nafarroako gizarteari Saharako herriarekiko kezka eta interesa manten dezan, Nafarroako elkartasun mugimenduak alor horretan abian jartzen dituen ekimenak babes ditzan ("Oporrak bakean", karabana...), eta ez ditzan ahantz Mendebaldeko Saharako gatazka konpondu gabeko gatazka politikoa dela, ezin ahaztuzkoa."

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera